

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR BEREZIA

Iruñean, 2001.eko martxoaren 29an

“Euskara Nafarroan” izenburupean egindako ageriko jardunaldiaren ondoren, iluntzeko zortziak eta laurdenetan, Euskaltzaindiak batzar berezi bati ekin dio Iruñeko Gurutze Plazako Institutuan.

Honako hauek bildu dira: J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J.A. Arana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrutegei eta P. Zabaleta euskaltzainak eta J. L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea.

Batzar gai bakarra honako hau izan da: Euskarak Nafarroan bizi duen egoeraren aurrean adierazpena prestatzea.

Testu-zirriborro bat aurkeztu da eta atalez atal aztertu eta eztabaidatu da. Azke-nean, aho batez onartu da testua honako izenburuarekin: *Euskararen egoera Nafarroan. Euskaltzaindiaren adierazpena*. Testuak gaztelerazko bertsioa ere izango du eta baita frantsesezkoa ere. Bestalde, Nafarroako gizarteari ez ezik, agintari eta erakunde ofizialei eta akademikoei, Espainiakoei zein Europakoei eta nazioartekoei, zabaltzeko asmoa agertu da.

Batzarra gaueko hamarrak laurden gutxitan eman da amaitutzat.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *